

Haziak mintzo

Olentzeroren bisita



lak egunero errepikatzen genituen eskola osoko ikasleekin. Abenduaren 15ean, menditik jautsia zen ikazkina gure artean zen neguburua seinale gisa. Musika, dantza eta kantuekin ongiatorria egin genion, herriko karri-

Bazuen orain zonbait aste Olentzeroren etortzea prestatzen ginuela gure eskolan. Kantu eta dantza tradizio-

ketan ibiliz. Ondotik, krakada goxo bat harekin partekatu genuen, Eguberriko giroan sartzeko. Heldu den urte arte Olentzero!

Zuraide Bihotz Sakratua



Euskal/Haziak

euskalhaziak@gmail.com

Haziak mintzo

Enpresak bisitatū

Mauleko San Frantses kolegioko 3. elebidunak gira.

2023ko abentūaren 7an, Xiberoko industriaren egūnean parte hartū dūgū, ODACE eta AZIA elkarteek antolatūrik.

Bi taldetan zatitūrik izan gira.

Lehen taldeak 2 enpresa bisitatū dūtū: "EBL" (plastikako enpresa) eta "Bilaka" (tresnak marrazten eta egiten dūtū industriari bürüz).

Bigarren taldeak ere 2 gūne bisitatū dūtū: "Etché Securité" Bildozen eta Irabarneko enpresa mintegia bisitatū dūgū.

Lehen taldeak EBL enpresa izigarri maite ūkan dū, ikusi dū nola plastika lantzen ahal zen eta adibidez nola taparioak egiten ziren.

Bigarren taldeak aldiz, "Etché securité" enpresan ikusi dū nola antolatzen zen boten egitea, kauxutik su-ehotzaile edo rafting-eko botetara.

Guretzat interesantea zen, aurten gure orientazioa hautatū behar baitūgū eta ez baitūgū industriaren lanak eta ez enpresak ere ezagūtzen.

Ikusi dūtūgū ere industriako lantegi batetan postū desberdinak: bñle-

goetan izaten ahal girela, behar dela jente ingelesez, espainolez mintzatzeko... Gure bürūan pensatzen gūnian enpresa horiek langile mota bat baizik beharra zutela, baina ikusi dūgū bakorbak bere postūa badūala eta lana espezializatūrik izaten ahal dela. Gustatū zaikū holako goizalde



baten igaitea eta prest gira arrapatitzeko!
Mauleko San Frantses kolegioko 3. elebidunak



Euskal/Haziak

euskalhaziak@gmail.com

Haziak mintzo

Itsaso Zabalera ikusgarria

Abenduaren 12an, Euskal Haziak (Irakaskuntza elebidun katolikoko guraso, irakasle eta irakasleen elkarte) ama eskolako haurrei opari ederra eskaini die. Maialen Alfarok animaturik Itsaso Zabalera ikusgarrian parte hartu dute. Ikasle guziak aktoreak bilakatu dira. Itsasontzira igan eta, aingura altxatu dute, bela igo eta itsasoan zehar bidaia ederra egin. Haien irudipenetik atera diren animali eder batzuk gurutzatu dituzte. Bidaia hori bukatzeko, lasaitu dira Maialenen kantu



bat entzunik.

Ipuin honi esker, haurrek ikasten dute haien gorputza entzuten, konfiantza indartzen eta lasaitzen.

Zer momentu goxoa pasa duten!

Ezpeletako Jondoni Eztebe eskola



Euskal/Haziak

euskalhaziak@gmail.com